

INFORMAZIO PUBLIKOA  
ESKURATZEKO  
ESKUBIDEAREN  
EGIKARITZA

—  
2020KO MEMORIA

## Aurkibidea

1. Sarrera	2
2. Eskaera kopurua eta kontsultatutako gaiak	2
3. Eskaerak arloka	4
4. Eskaeren izapidetze egoera eta erantzun-epeak	5
5. Eskaerak egiteko eta erantzunak jasotzeko bideak	6
6. Eskaeren hizkuntza	8
7. Eskatzaileei buruz	8
8. Zerbitzuaren ebaluazioa	9
9. Ondorioak	¡Error! Marcador no definido.

## 1. Sarrera

Herritarrek 2020ko ekitaldian informazio publikoa eskuratzeko egindako eskaeretatik jasotako datuak aurkeztea da dokumentu honen xedea.

Horretarako, 2020ko urtarrilaren 1etik urte bereko abenduaren 31ra bitartean erregistratutako eskaera guztiak hartu dira kontuan, jatorria eta modalitatea edozein izanda ere.

## 2. Eskaera kopurua eta kontsultatutako gaiak

Ermuko Udalak informazio publikoa eskuratzeko **47 eskaera** jaso ditu 2019. urtean. Kontsulta-eremuak edo eskatutako gaiak honako hauek izan dira:

Espediente zkia	Eskatutako informazioa
430/2020	Zearkale 12 eraikuntza proiektuaren errebisioa
457/2020	Santa Ana 1-2 eraikinen planoak erreforma burutzeko
669/2020	Unamunon jarduera erregularizatzeko proiektua
701/2020	Goienkale 9ko memoria eta planoak
702/2020	Gipuzkoa Etorbidean igogailua eraikitzeko proiektua

703/2020	Pertsonal Batzordearen eta Udalaren barneko antolakuntzaren inguruko datuak
704/2020	Udaltzaingoaren zerbitzu orriak
918/2020	Taberna bateko zaraten neurketak eta datuak
942/2020	CAI Unicef programarako demografia datuak
964/2020	Zerukoako etxebizitzaren baldintza urbanistikoak
1041/2020	Etxebizitzan igogailua instalatzeko proiektua
1178/2020	Etxebizitzako bizi baimena eta obra lizentzia
1193/2020	Animalien ongizate eta kudeaketa eskumeneren inguruko informazioa
1273/2020	65 urtetik gorako pertsonen erroldako datuak
1688/2020	Zorren ordainketen ziurtagirien zerrenda
1722/2020	Nazioarteko Lankidetzako Kontseiluaren barne araudia
1724/2020	Hizkuntza bikoteen programaren eta gizarteratze eta barneratzeko jardueren inguruko informazioa
1889/2020	Udalekuak 2020 kanpainarako datuak
2187/2020	2017 eta 2019 artean egindako erregistro elektronikoen inguruko informazioa
2237/2020	Abeletzeko garajeetarako sarrerari buruzko informazioa
2599/2020	Zubiaurreko obra komunitarioen inguruko informazioa
2733/2020	Izelaietako lokal baten jarduera lizentzia
2823/2020	Udaltzaingoak elkarte batean egindako jardueraren txostena
2825/2020	Ikuskaritza bat egin izanaren arrazoiak
2877/2020	Segurua Udaltzaingoarekin harremanetan jarri den edo ez baieztatzea
3113/2020	Bere eraikinaren ITEa aurkeztu dela ziurtatzea
3313/2020	1936ko udal errolda kontsultatzea
3520/2020	Udaltzaingoak elkartean egindako jardueraren kopia
3625/2020	Santa Anako igogailua eraikitzeko obren informazioa
4371/2020	Senide baten izenean dauden lursailen inguruko informazioa
4661/2020	Fatxadako obra lizentzia espedientea kontsultatzea

4896/2020	Goienkale 12ko memoriari buruzko informazioa
5332/2020	Baldespina Markesa palazioaren planoak eta proiektua
5603/2020	Abeletxe 13 etxebizitza proiektuaren kontsulta
5607/2020	Hil den senide bati emandako dokumentazioa eskuratzea
5979/2020	Udal arkitektuak etxera egindako bisitaren akta
7111/2020	Urtiako lokal bateko proiektuaren kopia
7118/2020	Betiondoko exekuzio proiektua
8341/2020	Santa Ana 2-3 planoak
8354/2020	Gipuzkoa Etorbideko plano batzuen kopia
8833/2020	Santixau jaietako programa zaharren kontsulta
8969/2020	1940-1990/2001-2002 urteetako erraldi eta buruhandien ordainketa kartak
9122/2020	Ostalaritza lokala zabaltzeko baimenaren kopia
9175/2020	2019an zezenketetara bideratutako aurrekontua
9227/2020	Mallabia errepideko industrialdeko lokalen dokumentazioa
9331/2020	Zerukoako etxebizitza bateko planoen kopia

*Oharra: dokumentu honetan behar bezala tratatu dira datu pertsonalak identifikatzea edo datu pertsonaletara lotzea ahalbidetzen duen informazioa duten eskaerak, pertsonak beren datuak babesteko duten eskubidea bermatzeko. Horregatik, lerro hauen gainean dagoen taulan, informazioa modu despertsonalizatuan erakusten da.*

### 3. Eskaerak arloka

Herritarrek Udalari kontsultak egiteko orduan dituzten interesak askotarikoak direla erakutsi dute, aurreko puntuan erakusten den taulan ikus daitekeen bezala.

Hala ere, aurreko ekitaldietan ikusitako joerari eutsi zaio, eta gehien eskatu den infomazioa **hirigintza alorrekoa** da oraingoan ere: planoak, eraikuntza-proiektuak, lizentziak, lokalak eta abar.

Herritarren Partaidetza eta Gardentasun Saila arduratzen da informazioa eskuratzeko eskaerak jasotzeaz, horien edukia aztertzeaz eta eskaera dagokion arlorra bideratzeaz, interesdunari ahalik eta erantzunik egokiena eman diezaion. 2020. urtean, jasotako 47 eskaerak honela banatu dira udal-arloen artean:

Alorra edo saila	Jasotako eskaera kopurua
Abiapuntu	3
Kultura	3
Hirigintzako Diziplina	8
Immigrazioa	2
Pertsonen kudeaketa	1
Hirigintzako Plangintza eta Kudeaketa	20
Diru-Bilketa	1
Idazkaritza	2
Hiritarren Segurtasuna	5
Gizarte Zerbitzuak	1
Gardentasuna	1

#### 4. Eskaeren izapidetze egoera eta erantzun-epeak

Ermuko Udala herritarren aldetik jasotzen dituen eskaera guztiei erantzuna ematen saiatzen da. Erakundeak aurreko urtean erregistratu dituen 47 eskaeretatik **43 erantzun dira**, eta 2 erantzun ofizialik gabe daude oraindik.

Bestalde, bi eskaera ez dira izapidetzeko onartu eta baliogabetu egin dira, barneko informazioa izan delako hasieratik edota eskatutako informazioa jada eman zitzaiolako interesdunari.

Alde grafikoari dagokionez, honela geratuko litzateke eskaeren egoera 2020 urte amaieran:



**Erantzuteko denborari** dagokionez, Administrazio Publikoak legez hilabeteko epea du herritarrei erantzun bat eskaintzeko; epe hori igaro ondoren, erantzunik eman ez bada, kontsulta ezetsizat joko da. Azpimarratzekoa da, informazioa lortzea zaila denean edo bilketa lan handia behar denean, Udalak hilabete bat gehiagoko epea izan dezakeela erantzuna emateko, interesdunari egoeraren berri eman ondoren.

2020. urtean, Ermuko Udalak erantzuteko batez besteko denbora **29 egunekoa** izan da. Ehunekoetan emanda, kontsulten %86,24 legezko hilabeteko epean ebatzi dira.

Aitzakiatzat eta kontsolamendutzat hartu gabe, azpimarratu behar da 2020a urte bereziki konplexua izan da Covid-19aren pandemiaren ondorioz. Erronka handia izan da eguneroko lanak egiteko eta arloak elkarren artean koordinatzeko. Horren ondorioz, kasu bat baino gehiagotan, erantzuna berandu iritsi da eta ohi baino denbora gehiago behar izan da informazioa eskuratzeko.

## 5. Eskaerak egiteko eta erantzunak jasotzeko bideak

Erakundeak hainbat bide eskaintzen ditu informazio publikoa eskuratzeko eskaerak egin ahal izateko. Oro har, eskaera-fitxa bat bete behar da

datu pertsonalekin, harremanetan jartzeko modu batekin eta lortu nahi diren datuen xehetasunekin. Ez da beharrezkoa eskaera arrazoitzea, ezta informazioa zertarako eskatzen den adieraztea ere, eta dokumentua hainbat modutan entregatu daiteke:

- Aurrez aurre: Abiapuntu bulegoan, astelehenetik ostiralera 08:00etatik 15:00etara. Eskaera-orria bertan eskuratu, bete eta entregatu daiteke.
- Posta elektronikoz: eskaera-orria behar bezala beteta [abiapuntu@udalermua.net](mailto:abiapuntu@udalermua.net) helbide elektronikora bidaliz. Udaleko beste arlo batzuetara ere bidali daiteke mezua, baina helbide elektronikori erabiltzea gomendatzen da, Abiapuntuko langileak arduratzen baitira eskaerei erregistroa emateaz eta informazioa eskuratzeko espedientea abian jartzeaz: bertan zentralizatzen da prozesuaren hasiera. [Eskaera burutzeko fitxa](#) udalaren webgunearen bidez deskarga daiteke.
- Egoitza elektronikoaren bitartez: erregistro telematikoak eguneko 24 orduetan, urteko 365 egunetan, dokumentuak aurkezteko aukera ematen du. Egoitzan identifikatzeko eta izapide ezberdinak burutu ahal izateko, ziurtagiri digitala izan behar da. Behin erregistroan sartuta, bertan osatu daiteke [informazio publikoa eskuratzeko eskaera](#).
- ORVEren bitartez: ORVE Administrazio Publiko guztiei eskaintzen zaien administrazio elektronikoko zerbitzua da hodeian. Horrek herritarrek erregistro-bulegoetan aurkezten dituzten dokumentuak digitalizatzeko eta helmuga duten helbideetara elektronikoki bidaltzeko aukera ahalbidetzen du. Ermuko Udala izan da zerbitzu hori erabili duen lehen toki-erakundeetako bat, eta, beraz, herritarrek edozein bulegotan entregatu dezakete eskaera, eta udalak berehalakoan jasotzen du jakinarazpena.
- Posta arruntez: ohiko posta zerbitzua erabiliz ere egin daitezke kontsultak. Horretarako, Abiapuntu - Komentukua kalea 3, 48260 Ermua, Bizkaia helbidera bidali beharko da gutuna. Eskaera-fitxa erabiltzea gomendatzen da; [Udalaren webgunearen bidez deskarga daiteke](#).

2020. urtean, informazioa eskuratzeko biderik erabiliena **aurrez aurrekoa** izan da, 30 kontsulta jaso baitziren Abiapuntun, bulegora bertaratutako

herritarren eskutik. Erregistro elektronikoa indarra hartzen ari da erabiltzaileen artean, eta gehien erabiltzen den bigarren bidea bihurtu da, 9 sarbiderekin. Azkenik, 5 pertsonak aukeratu dute posta elektronikoa erabiltzea kontsultak egiteko, bik ORVE eta batek posta ziurtatua.

Bestalde, eskaera egiten duen orok Udalaren erantzuna jasotzeko nahiago duen modalitatea ere aukera dezake. Hala, eskaeretan zehaztutako argibideei jarraituz, gehienak **posta elektronikoz** erantzun dira: 21 guztira. 11 interesdunek posta arruntez jaso dute erantzuna, eta beste 6k, berriz, erregistro telematikoaren bidez, Ermuko Udalaren Egoitza Elektronikoaren bidez, alegia. Azkenik, 3 pertsona joan dira udaletxera bertara, eskatutako informazioa formatu fisikoan baino ezin baitzen kontsultatu.

## 6. Eskaeren hizkuntza


Gardentasunari, Informazio Publikoa eskuratzeko bideari eta Gobernu Onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak ezartzen duenez, ebazteko ardua duen administrazio publikoa dagoen lurraldeko edozein hizkuntza ofizialetan egin daitezke informazio-eskaerak. 2020. urtean, erregistratutako eskaeren ia %100 **gaztelaniaz** izan dira (47tik 45). Euskara hutsezko eskaera bat jaso du erakundeak, eta beste bat elebiduna izan da.

## 7. Eskatzaileei buruz

Eskatzaileari buruzko datu estatistikoei dagokienez, komeni da gogoraraztea informazioa eska daitekeela, bai pertsona fisiko indibidual gisa, baita elkarte edo erakunde bateko ordezkari gisa ere. Azken kasu horretan, datuak jasotzerakoan, taldearen profilari eustea erabaki da, ordezkariaren sexua kontuan izan gabe.

Beraz, bereizketa horri erreparatuz gero, ikusten da Ermuko Udalari informazioa eskatu dioten gehienak **gizonezkoak** direla (20). Grafikoki azalduta, honela geratuko litzateke:





## 8. Zerbitzuaren ebaluazioa

2017az geroztik, Ermuko Udalak informazio publikoa eskuratzeko zerbitzuaren gogobetetze-inkesta du abian. Hala, erakundean eskaera bat erregistratzen duen pertsona bakoitzak, erantzunari dagokion jakinarazpenarekin batera, galdetegi bat jasotzen du – paperean edo elektronikoki, sarbide-modalitatearen arabera –, kanalei, izapideei edo emandako erantzunari buruzko galderekin.

2020. urtean, 5 pertsonak bete dituzte gogobetetze-inkestak, eta euren iritziak islatuz, zerbitzuari 10 puntutik 7,6ko batez besteko balorazioa eskaini diote.